


ERESLARI BI



Bernaola'tar Karmelo eresgillea ta Atxukarro'tar Joakin pianularia aberriko eresi-sariketan sarituak izan dira. Jakintza-Jaur-Sailleak iragarri eban lez, milloi bi ta erdi lauerlekoz oniduta dagoz sari orreik.

Ertilaric lan-ekintza saritzen da or eta aberriko erresiari buruz, oraingo ikuspegia ondo agertzen dala diñoe batzuk, baiña eresgille gazteai emon bear jakela laguntza be esan dabe.

Ertilari oneik nongoak diran?

Biok dira euskotarrak, eta bat Otxandiano'koa izanez, euskaldun jatorra, euskeraz berba egiten dakiana. Eta bestea, euskadi'ko abizena euki arren, ez dakit euskerarik dakian.

Aldi bitako pozaldiak gogoratzen dauz Bernaola'k: 1952'an olangoxe sariketa baten Atxukarro ereslari bizkaitarrari emon eutsola saria diño.

Gure Bernaola antxiñatik dabil eresa sortzeko lanetan eta entzute aundia lortu dau; zine, irrati eta ikuskiñean eres-lan asko agertu dauz eta orregaitik 1988'an artu eban Goya saria, "pasodoble" pelikulearen eresagaitik, zinc-akademiak emoten dauan saria.

Bernaola'tar Karmelo 1929'an garagarrillarcn 16'an jaio zan. Gero Erroma'n Godofredo Petrassi'ren ikasle izan zan eta Darmstad'en Bruno Maderna'ren lankide. Tasman eta Julivet'eko ikaskctara eldu zan Lavagnino zine zalearekin.

Sariketa askotan izan da txapeldun, baiña saririk ederrena Eder-Lan edo Erti-cderren urczko domiñea da.

Atxukarro'tar Joakin pianularia Bilbao'n jaio zan 1937n. urtean eta Liverpool'en Erriarteko Norgeiangoan garaille urten eban 1960'an. Bere erriarteko lasterketa, abiadura, oskatu egin eban.

Urte onetan London'go Simphoni Orchesta'gaz lan-aldia egin eban eta urte aretako pianulari gazterik onenari lez, Harriet Cohen domiña emon eutsoen.

Atxukarro'ren abiadura munduko laterrik ospetsuetan biribildu da, baita jai-aretorik onenetan be. Guztiz, berrogei ta zortzi laterritara eldu da.

Ingeles, italiatar eta españatar orkesta-ereskintzara eldu da zuzendari bakar lez, danon pozerako.

Euskotar, Bilbaotar eta bizkai'tar oneri jakintza-lanbi-deak aberri-sariketa emon eutsonean, berak au iñoan: "Ustekahez, zerutik jausita, poz-atsegiñez bete nauan zerbait izan da".

LETONA'K

IPUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bear ko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñarcn barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillarcn azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

Sariak lau izango dira:

- 1.^a 40.000 pezeta
- 2.^a 30.000 pezeta
- 3.^a 20.000 pezeta
- 4.^a 10.000 pezeta

Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK